

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	Euskara eta Kultura		
IRAUPENA	Ordubete eta erdi	EGUNA	2018-09-12
GAIA	Euskaraldia eta beste	DEIALDIA	20:30
PARTE HARTZAILEAK			
Nekane Agirre	Iñigo Igartzabal		Ezin etorria adierazi dute:
Jesus Gorrotxategi	Xabat Goikoetxea		Jokin Murua
Aloña Murua	Eresti Oiarbide		
Arantzazu Baztarrika	Leire Murua		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
EUSKARA KLASEAK	Oraingoz hiruk eman dute izena.		
YOGAko oinarrizko hiztegia euskaraz	UEMAkoei eskatu diegu, hemen aritzen den irakasleak ez baitaki.		
Euskarazko produktuen katalogoa	Ea noizko iristen diren, baina komeniko litzateke Durangoko Azoka baino lehentxeago banatzea.		
Legazpiko musika-banda	Irail bukaera, urria aldera etortzekoak ziren, baina udaberri alderako utziko dugu.		
Gure zirkua	Ze prezio duten begiratuko dugu; udaberrirako ekar liteke. Atsegina da bai umeentzat eta baita helduentzat ere.		
Hip Hip Urri!	Aurten egitasmo honen barruan ezer ez egitea erabaki da; hala ere, altxorraren bila egingo dugu, sekulako arrakasta izaten baitu. Hori helduentzat, eta, txikientzat, berriz, gurasoekin batera (40 urte bueltan dabilzanentzat-edo) garai bateko jolasak egitea pentsatu dugu. Oraindik askorik zehaztu gabe badago ere, aurreraxeago emango dugu informazio gehiago.		
Eskola	Aurten antzerkia ez dute abenduan egingo; euren proposamena inauterietan lotzea izango da. Euskararen egunerako ere zerbait egingo dute.		
Argazkien jolasa	Makilariko aurtengo argazkien jolaseko saria Mikel Asurabarrenak irabazi du; datorren urteko alerako berak aterako ditu argazkiak.		

Euskaraldia	<ul style="list-style-type: none"><li data-bbox="459 190 1364 302">• Irailaren 20an, 18:30ean, Iruñeko Baluartean Euskaraldian izena emateko irekiera ekitaldia egingo dute. Komeni da ahalik eta herri gehienetako jendea joatea<li data-bbox="459 369 1412 504">• Gabiriako aurkezpena, irailaren 21ean izango da, arratsaldeko 19:30ean, Kultur etxean. 15 minutu iraungo du eta ondoren pintxoak egongo dira eta tragoxka bat egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek. ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!!!!
--------------------	---

**Hurrengo bilera,
azaroaren 14an, 20:30ean**